

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Onestea oposizio-lehiaketa bidez Udaltzaingoko agente plaza bat jabetzan betetzeko oinarriak eta deialdia

Aguraingo Udaleko tokiko gobernu batzarrak, 2020ko uztailaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

1/ Onestea oposizio-lehiaketa bidez Udaltzaingoko agente plaza bat jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri arautzaileak.

2/ Udaltzaingoko agente plaza bat oposizio-lehiaketa bidez jabetzan betetzeko hautaprobeen deialdia egitea, Aguraingo Udalaren 2019ko lan eskaintza publikoaren arabera. Tokiko gobernu batzarraren 2019ko martxoaren 25eko erabakiaren bidez onetsi zen eskaintza hori, eta aldatu Tokiko gobernu batzarraren 2020ko maiatzaren 13ko erabakiaren bidez; argitaratu, berriz, ALHAOn 2020ko ekainaren 1ean, 61. zenbakian, eta EHAA 2020ko ekainaren 12an, 115. zenbakian.

3/ Hautaprobeen oinarri arautzaileen testu osoa argitaratzea ALHAOn.

4/ Deialdiaren laburpen bat BOEn argitaratzea, eta horren iragarkia argitaratzen den eguna erabiliko da eskaerak aurkezteko epea zenbatzeko.

5/ IVAPi jakinaraztea, deialdi horretako hautaketa organoko kide izateko titularra eta ordezkaria izenda dezaten, eta epaimahaikideei jakinaraztea euren izendapena, jakinaren gainean egon daitezen, eta epaimahaiaren behin betiko osaera argitaratzea.

6/ Alkateari baimena ematea hautaketa prozesuak eskatzen dituen egintza guztietarako.

7/ Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabete epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, edo nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa, hilabete epean, alkateari; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Agurain, 2020ko uztailaren 29a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES

I. ERANSKINA**AGURAINGO UDALERA UDALTZAINGOKO AGENTEA KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO DEIALDIAREN ETA HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

LEHENENGOA. Deialdiaren xedea.

Oinarri hauen xedea da 2019ko ekitaldiko lan eskaintza publikoan sartutako plaza bat jabetzan hornitzeko arauak ezartzea; izan ere, hori halaxe onetsi zen tokiko gobernu batzarrak 2019ko martxoaren 25eko bilkuran hartutako erabakian, ALHAOn argitaratuta 2020ko ekainaren 1ean, 61. zenbakian, eta EHAAn 2020ko ekainaren 12an, 115. zenbakian. Plazaren ezaugarriak honako hauek dira:

IZENA	UDALTZAINGOKO AGENTEA
Taldea	C
Azpitaldea	C1
Eskatzen den titulazioa	Batxilergoa, LH 2. maila edo baliokidea
Eskala	Administrazio Berezia
Azpieskala	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsen kopurua	1
Hautaketa sistema	Oposizio-lehiaketa
Hizkuntza eskakizuna	2
Derrigortasun data	2020ko martxoaren 26a
Destino osagarria	22

— Lanaldia, ordutegia eta egutegia:

Dedikazioa: ehuneko 100.

Lanaldia Aguraingo Udalak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia zehatzak kontuan harturik; eta goiz eta arratsalde zatiua izan ahal da.

— Zereginak:

1. Udalerrietako agintariak babestea eta bertako eraikinak eta instalazioak zaintzea eta gordetzea.

2. Herriguneko trafikoa antolatu, seinaleztatu eta zuzentzea, zirkulazio arauetan ezarritakoaren arabera.

3. Administrazio polizia izatea, ordenantzei, bandoei eta gainerako udal xedapen eta egintzei dagokienez, bere eskumen esparruaren barruan, bai eta ingurumenaren arloan eta ingurunea babestearen arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzea ere, gai horietan tokiko eskumeneren esparruan.

4. Istripu, hondamendi edo lakeria publikoko kasuetan laguntza ematea, legeetan aurreikusitako moduan, babes zibileko planak betearazten parte hartuz.

5. Udalaren jakinarazpen eta komunikazioak banatzea, iragarki taulak mantentzea, eta udalak agintzen dituen kartel eta agiriak jartzea.

6. Mantentze zerbitzuari laguntzea, beharizanek hala eskatzen dutenean.

7. Udalerrian egiten diren eta agintzen zaizkion jai, kultura eta kirol ekitaldi guztietan laguntzea.

8. Behar izanez gero, antzeko kategoriako udal langileak ordezkatzeara.
9. Jabari eta erabilera publikoko eta udal jabetzako ondasun eta instalazioen kontrola.
10. Zerbitzu publikoen kontrola.
11. Asteroko merkatuaren kontrola, tasaren bilketa, baita antolatzen diren beste merkatu eta azokena ere.
12. Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean ezarritakoarekin bat etorritik egokitu dakizkiokeen guztiak.
13. Bere kategoriari dagozkion eta agintzen zaizkion gainerako zereginak.

BIGARRENA. Izangaia onartzeko baldintzak.

Hautaketa prozesuetan parte hartu ahal izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen eta hautaketa prozesu osoan lanpostuaz jabetu arte, honako betekizun hauek bete beharko ditu, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

b) Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea atazak betetzeko.

c) Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, 38 urte baino gutxiago.

d) Ez egotea, diziiplina espediente bat dela medio, edozein herri administrazioaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu organoen zerbitzutik bereizita eta ez izatea, ebazpen judizialen bidez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko desgaitasun absoluturik edo berezirik, ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, ez eta, langile lan kontratadunen kasuan, bereizi edo desgaitu aurretik betetzen zizuten antzeko funtzioak betetzeko ere. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez egotea ezgaituta edo antzeko egoeran, ez eta bere estatuan enplegu publikora sartzeko modu berean eragozten duen diziiplina zigorren baten edo antzekoren baten mende ere.

e) Dagokion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

f) B motako gidabaimena izatea.

HIRUGARRENA. Eskakerak aurkezteko modua eta epea.

Izangaiek administrazioa sartzeko probetan parte hartzeko eskaeran (I. eranskina) idatziz jaso beharko dute oinarri orokor hauetan eskuratu nahi den plazarako eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Eskakerak udaleko alkate-lehendakariari igorriko zaizkio eta udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dira, hogeita (20) egun balioduneko epean, deialdiaren laburpena BOEn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 6.2 artikuluen indarrez. Eskabideak aurkezteko azken eguna balio gabekoa bada, dagokion hurrengo egun balioduneko aurkeztu ahalko dira.

Halaber, hautaprobaren deialdia arautuko duten oinarriak ALHAOn eta udalaren web orrian (<https://agurain.eus>) argitaratuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 30.3 artikulua betez.

— Proben hizkuntza:

Eskabideetan, hautaprobak zein hizkuntzatan egin nahi diren adierazi beharko da (euskara edo gaztelaniaz). Horri buruz ezer adierazi ezean, proba guztiak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da.

— Ezinduak:

Gainerako izangaien baldintza berberetan parte hartzen dutela ziurtatzeko, hautaketa prozesuan probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezarriko dira hala eskatzen duten izangaiarentzat, baldin eta ezintasunak zuzeneko loturarik badu egin beharreko probarekin.

Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, ezinduek aurkeztutako agiriak aztertuta, probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

LAUGARRENA. Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak ebazpena emango du gehienez ere hilabeteko epearen barruan, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuz. Aipatutako ebazpena ALHAOn eta udaleko web orrian (<https://agurain.eus>) argitaratuko da, eta bertan hamar egun balioduneko epea ezarriko da akatsak zuzendu edo konpontzeko.

Aurkeztutako alegazioak hogeita hamar eguneko epean ebatziko dituzte aurkezteko epea amaitzen denetik. Epe horretan ebazpenik eman ez bada, alegazioak ezetsi direla joko dira.

Aurkeztutako alegazioak aztertuta, alkatearen ebazpen bidez behin betiko onetsiko da onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, eta hori ere ALHAOn eta udaleko web orrian (<https://agurain.eus>) argitaratuko da. Argitalpen horretan bertan adieraziko da lehenengo hautaprobea egiteko eguna, ordua eta tokia. Hurrengo probetarako deia udaleko web orrian (<https://agurain.eus>) argitaratuko da.

Oposizioa ariketa bat amaitzen denetik hurrengo hasi arte, gutxienez, 72 ordu igaro behar dira eta, gehienez, 45 egun natural (SAOri buruzko 364/1995 EDaren 16. artikulua).

BOSGARRENA. Epaimahai kalifikatzailea.

Dei egindako plazak hornitzeko izangaien hautaketa epaituko duten epaimahaien osaera orekatua izango da, sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkari izanik, nola eta ez den behar bezala justifikatzen hala ez dagokiola.

Epaimahaiek lehendakari bat eta lau kide izango dituzte, bakoitza bere ordezkorekin, eta karrerako funtzionarioak izango dira. Kideetako bat idazkari izendatuko da. Izendapen edo hautaketa politikoko langileek, behin-behineko funtzionarioek eta aldi baterako langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa organoetan. Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaiak osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Epaimahaiak erabaki dezake aholkulari espezialistak sartzea epaimahaikideekin lankidetzan aritzeko. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, hitza bai baina botorik gabe.

• Abstentzioa eta errekusazioa:

Epaimahaikideek ez dute esku hartuko eta Udaleko alkateari jakinaraziko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiak epaimahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera aurreko artikuluan xedatutako gorabeheraren bat dagoenean.

- Epaimahaikideak oinarrietara lotzea:

Epaimahaiak lotuta geratzen dira kalifikatu beharreko probetako hautapen prozesuak arautzen dituzten oinarri hauei.

- Jarduteko arauak:

Epaimahaien jarduna urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenari lotuko zaio.

Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik eta garaiz bilduko dira, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo haien ordezkioak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu direnen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa. Berdinketak epaimahaiburuaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Epaimahaiburuaren edo beraren ordezkioaren kargua hutsik badago, bertarutzen ez bada, gaixorik badago edo legezko arrazoiren bategatik bilerara azaltzen ez bada, epaimahaikide hauetako bat izango da ordezkioa (hurrenkera honetan): hierarkian maila goragokoena duena, antzintasun handiena duena eta zaharrena.

Idazkaririk eta bere ordezkorik ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaiak gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

- Ahalmenak:

Epaimahaiek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezotasuna zainduko dute eta haren objektibotasuna bermatuko dute.

Epaimahaiek ebatziko dute, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertuta, oinarri hauetan jasotzen den moduan probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arrazoi-zko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

Halaber, eta ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebatziko dituzte, eta behar diren erabakiak hartuko dituzte deialdi bakoitza era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

Hautaketa prozesuko edozein unetan eska dezake epaimahaiak deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzea, horretarako hogeitun egun balioduneko epea ezarrita, eta izangairen batek betetzen ez baditu edo epearen barruan egiaztatzen ez baditu, aurrez interesdunari entzunaldia emanda, baztertzeko proposamena egingo dio Aguraingo Udaleko alkateari, baztertzeko proposamenaren arrazoiak azalduta.

Epaimahaiburuek behar diren neurriak hartuko dituzte oposizio faseko proba idatzien edukia isilpean gordetzen dela bermatzeko eta ariketak izangaiak nor diren jakin gabe zuzentzeko. Ariketak modu mekanizatuan zuzentzen ez diren kasuetan, epaimahaiek baztertu egingo dituzte izangaiak baldin eta ariketa idatzietan beren nortasuna jakiteko aukera ematen duen marka edo zeinurik badago.

- Ondoko hauek osatzen dute epaimahai kalifikatzailea:

KARGUA	NORTASUNA
Epaimahaiburua	Marta Ramírez
Ordezkoa	Ana López de Lacalle
1. epaimahaikidea	Francisca Irigoien Ostiza
Ordezkoa	Olga Sanz Corera
2. epaimahaikidea	IVAPek izendatutako pertsona

KARGUA	NORTASUNA
Ordezkoa	IVAPek izendatutako pertsona
3. epaimahaikidea	Francisco Coronel Mora
Ordezkoa	José Antonio Sanz Puente
Idazkaria	Pastor Martín Jiménez
Ordezkoa	Josu Pérez de Villarreal

SEIGARRENA. Hautaketa sistemak eta prozesuen garapena

Izangaiei hautaketa prozesuan aldi hauek izango dira:

- Oposizioa.
- Lehiaketa.

Oposizio aldiak hasiko du hautaketa prozesua. Oposizioko probak egin ondoren, lehiaketa aldiari ekingo zaio, eta, horretarako, epaimahaia bilduko da epaimahaiburuak zehaztutako egunean. Epaimahaiak alegatutako merezimenduak ebaluatuko ditu, eta lehiaketaren puntuazioak argitaratuko ditu. Lehiaketa aldia ez da baztertzaileria izango, eta ezingo da kontuan hartu oposizio aldiko probak gaitzetzeko, toki administratioko funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

A. OPOSIZIO ALDIA (43 puntu).

Izangaiei deialdi bakarria egingo zaie, eta bertara agertzen ez direnak kanporatuta geratuko dira, behar bezala egiaztatu eta epaimahaiak berak askatasunez onar ditzakeen ezinbesteko arrazoiak tartean direnean izan ezik.

Izangaiek NANA edo, halakorik ezean, pasaportea edo gidabaimena eraman behar dute ariketara. Epaimahaiak edozein unetan eska diezaike lehiakideei beren nortasuna egiaztatzeke.

Oposizio aldia izango da 3 proba hauek egitea:

Lehenengo ariketa (25 puntu).

Izangai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaileria.

Epaimahai kalifikatzaileak prestatutako eta III. eranskineko gai zerrendarekin lotutako test motako galdetegi bati erantzutean datza.

Izangai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaileria da ariketa hori eta 0 eta 25 puntu bitartean emango zaizkio; gutxienez 12,50 puntu lortzen ez dituzten izangaiaak automatikoki kanporatuta geratuko dira.

Bigarren ariketa (18 puntu).

Izangai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzaileria.

Epaimahaiak lanpostuaren eginkizunekin eta/edo III. eranskineko gai zerrendarekin lotuta prestatutako kasu praktikoak ebatztean datza.

Ariketari 0 eta 18 puntu bitartean emango zaizkio; gutxienez 9 puntu lortzen ez dituzten izangaiaak automatikoki kanporatuta geratuko dira.

- Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea:

Eskatutako hizkuntza eskakizuna eskaerarekin batera egiaztatuko da, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriari baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako

Erreferentzia Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituen azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan finkatutakoa edozein moduren bidez.

Aldez aurretik egiaztatu ezin duten eta ariketa baztertzailerak gainditu dituzten izangaiatzat, euskararen ezagutza maila egiaztatzeako probak egingo dira, IVApek hautaketa prozesuetan hizkuntza eskakizunen azterketak egiteko deialdi bateratuen egutegiaren arabera.

B. LEHIAKETA ALDIA. (18 puntu).

Izangaiek eskabideak aurkeztutako epean ekarritako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratzea, oinarri hauen arabera eta bestelako merezimendurik baloratu gabe. Deialdia argitaratzen den egunera arte hartutakoak baino ez dira balioetsiko.

Horretarako, merezimendu bakoitzari baremo hauen arabera dagozkion puntuak emango zaizkio:

a) Lan esperientzia: 10 puntu, gehienez:

Administrazio publikoan, aguazil edo udaltzain gisa egindako zerbitzuengatik:

- Aguazil gisa egindako zerbitzuak: 0,20 puntu, hilabete bakoitzeko. Gehienez ere 6 puntu.
- Udaltzain gisa egindako zerbitzuak: 0,15 puntu, hilabete bakoitzeko. Gehienez ere 4 puntu.

b) Prestakuntza eta ikasketak, 7 puntu gehienez:

- Euskara: 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea frogatzea: 1 puntu.

— Babes zibilarekin edo udaltzaingoaren eginkizunak betetzearekin lotutako ikastaroak, zentro ofizialek, itunpeko zentroek, akademiek edo INEMek edo Lanbidek emandakoak, jarraian zerrendatzen diren espezialitateei buruzkoak, eta 0,50 puntuko balorazioarekin 40 ordutik gorako ikastaroak badira, eta 0,25 puntu 20 eta 40 ordu arteko ikastaroak badira: 6 puntu.

a) Autobabesa.

b) Suteak itzaltzea eta prebenitzea.

c) Ezbeharren kausak ikertzea.

d) Laneko arriskuen prebentzioa.

e) Hiri erreskateak eta biktimak ateratzea.

f) Segurtasuna eta ingurumena.

g) Sorospena eta lehen laguntzak.

h) Salgai arriskutsuen tratamendua, garraioa edo erabilera.

i) Instalazioa eta mantentze lanak.

j) Eraikuntzako patologia.

k) Planoen interpretazioa.

l) Ibilgailuen mekanika.

m) Berdintasuna.

c) Bestelako merezimenduak, gehienez ere 1 puntu:

Informatika ezagutza: Gehienez ere 1 puntu ITT xartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelaniaz)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskaraz)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-goenak.

Lehiaketa aldian, guztira, 18 puntu lortu ahalko dira.

ZAZPIGARRENA. Kalifikazioa.

Hautapen prozesuko azken kalifikazioa oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortzen diren puntuen batura izango da.

Oposizio aldiko ariketak oinarri hauetan xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira. Lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioa oinarri hauetan jasotako baremoen arabera esleituko puntuen batura izango da.

Berdinketa hausteko irizpideak:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua aplikatuz, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa prozesuaren amaierako puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, proba guztiak egin eta baloratu ondoren eta dagozkion merezimenduak batu ondoren. Berdinketarik gertatuz gero, ondoko irizpideek zehaztuko dute hurrenkera ordena bata bestearen atzetik:

- 1) Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 2) Oposizio aldiko azken ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3) Oposizio aldiko lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 4) Lehiaketa aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 5) Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, baldin eta denbora hori, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera, lehiaketa aldian baloratu beharreko merezimendua bada.

ZORTZIGARRENA. Gaingiduen zerrenda, eskatutako betekizunak egiaztatzea eta izendapena.

Izangaien azken kalifikazioa egin ondoren, epaimahaiak izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du, puntuazio ordenaren arabera, udal horren web orrian [<https://agurain.eus>]. Gaingiduen behin-behineko emaitza horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte lehiaketa aldiaren gainean egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak gaingidu dutenen behin betiko zerrenda bakarra argitaratzeko agindua emango du. Zerrenda hori korporazioaren buruari aurkeztuko zaio, ALHAOn argitaratu dezan.

Proposatutako izangaiek deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatu beharko dituzte administrazioaren aurrean, hogeitau egun balioduneko epean, udal horren web orrian (<https://agurain.eus>) eta ALHAOn argitaratzen direnetik (II. eranskina).

Epe horren barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzen ez dituzten izangaiek edo dokumentazioaren arabera deialdian eskatzen den betekizunen bat betetzen ez dutenak ezin izango dira izendatu, eta bertan behera geratuko dira haien inguruan egindako jarduketak guztiak; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango parte hartzeko eskaeran faltsukeria egiteagatik erantzukizuna eskatzeko.

Alkateak praktiketako funtzionario izendatu beharko du proposatutako izangaia, hilabeteko epean, aurreko 20 egunetako epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Aipatutako izendapena ALHAOn eta udal horren web orrian argitaratuko da (<https://agurain.eus>).

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak egoera horretan egongo dira prestakuntza ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu arte edo hautaketa prozeduratik kanpo utzi arte.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez finkatuko da prestakuntza ikastaroari hasiera emateko eguna.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia nahitaezkoak eta baztertzailerak izango dira, banaka hartuta, eta horiek biak gaingidu ezean, izangaia hautaketatik kanpo geratu da eta gaingiduen ez duenak EAEko polizia kidegoko oinarritzko eskalako agentearen kategorian sartzeko ordura arte eskuratu dituen eskubide guztiak galduko ditu.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia ezin izango dira aldi berean egin, eta horietako bakoitzaren iraupena, ezta bina metatutakoa ere, ezin izango da 30 hilabetetik gorakoa izan.

Prestakuntza ikastaroa:

Prestakuntza ikastaroa ikastaro akademikoa izango da, nahitaezkoa eta baztertzailerak, eta zehaztutako ikasketa planean eta araudi aplikagarrian jasotzen diren edukiak, ebaluatzen erak, gaingidutako moduak eta iraupena izango ditu.

Prestakuntza ikastaroko kalifikazioak indarrean dagoen legediaren arabera argitaratuko dira.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak aditzera emango du prestakuntza ikastaroa gaingiduen ez dutenen kanporaketa.

Prestakuntza ikastarora lehen egunean joaten ez bada, joan ez den pertsona hori automatikoki baztertuko da, salbu eta behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kausaren bat gertatzen bada eta aldeztu aurretik eskatzen bada. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak aztertuko du ezinbesteko kausa eta berari egokituko zaio hartzea kasuan kasuko ebazpena.

Prestakuntza ikastarora ez joateagatik bete ez den plaza, esleitutako plazarik gabe geratu den eta horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituen hurrengo pertsonari eskaini eta hark beteko du.

Praktikaldia:

Prestakuntza ikastaroa gainditzen dutenek Aguraingo Udalean egingo dute praktikaldia, jarduera egokienak betez prestakuntza integrala lortu eta dagokion polizia kidegoko polizia zerbitzuen egitura eta funtzionamendua ezagutzeko bereziki.

Praktikaldia hasi baino lehen, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ebazpena emango du, non finkatuko baititu praktikaldiaren iraupena, praktikaldia ebaluatzeko eta gainditzeko sistemak eta prozedurak, eta praktikaldiko destinoak esleitu eta haietara joateko eguna. Ebazpena Aguraingo udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko da (<https://agurain.eus>).

Praktikaldian, EAEko Poliziaren oinarritzko eskalako agentearen kategoriari datxekion zereginei lotutako lanbide eraginkortasuna ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen bitartean gertatzen diren gertakariei buruzkoa izango da soilik.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak aditzera emango du praktikaldia gainditzen ez dutenen kanporaketa.

Praktikaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteko epearen barruan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren proposamenez, administrazio publikoetako organo eskudunak karrerako funtzionario izendatuko ditu oinarri hauen arabera hautaketa prozedura gainditu dutenak.

Txostena kontrakoa bada, ebaluatutako pertsonak ez du praktikaldia gaindituko, eta izendatzeko eskubide oro galduko du. Hamar eguneko epea emango zaio bere eskubideari dagozkion alegazio edo oharak egin ditzan. Organo eskudunak, alegazioak aztertu ondoren, praktikaldia gainditu ote den ebartziko du, eta ukitutako pertsonari emango dio erabakiaren berri.

Praktiketako funtzionarioen araubide juridikoa:

Praktiketako funtzionario gisa, kasuan kasuko administrazioaren aldetik sartu nahi duten kategoriaren sailkapen taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokidea den ordainsaria jasoko dute. Ordainsari hori, praktikak lanpostu batean egiten badira, talde horri esleitutako ordainsari osagarrietan gehituko da.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren barne araubideko araudia eta barruko arautegia aplikatuko zaie praktiketako aldiko funtzionarioei, prestakuntza ikastaroak eta praktikaldiak irauten duten bitartean. Era berean, egitatea irakaskuntza diziplinako falta bakuntzat jotzen ez den diziplina araubideko kasuetan, modu osagarrian, Euskal Herriko polizia kidegoen diziplina araubideko arauak aplikatuko dira.

Hautaketa prozeduratik automatikoki kanpo uzteko arrazoi espezifikoak dira prestakuntza ikastaroa edo praktikaldia gainditu ez izana edo haietan ez-gai dela deklaratzeko, bai eta oinarri honetako aurreko paragrafoan aipatzen diren arauen arabera larritzat edo oso larritzat tipifikatutako arau-hauste bat egiteagatik zehapen bat ezartzea ere; eta prozedura horretatik eratorritako eskubide guztiak galtzen dira, Euskal Herriko poliziaren oinarritzko eskalako agente kategorian sartzeko.

Halaber, prestakuntza ikastaroan balia daitezkeen ebaluazio irizpideekin bat, ikasketa planean jasotako gaien ebaluazio partzialaren zioz, izangaiak prestakuntza ikastaroa gainditzerik ez badauka, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak proposatu ahalko dio praktiketako funtzionario izendatu duen organoari kanporatzea, praktiketako aldian dagoen funtzionarioari entzun eta gero.

Prestakuntza ikastarora joaten ez bada ikasketa planean aurreikusitako gehienekoa baino denbora gehiagoz, hautaketa prozeduratik kanpo geratuko da automatikoki, barne araubideko arauaren arabera, ezinbesteko kausarik ez badago behintzat.

Prestakuntza ikastarora ez joatea dakarren edozein baimen edo lizentzia hartzeko eskaera Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian aurkeztu beharko da, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako prestakuntza ataleko Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arloko burutzak baimendu beharko du aldez aurretik. Zerbitzuaren premien arabera lizentziak edo baime-nak hartzeko ondorioetarako, horiek existitzen direla ulertuko da, baldin eta derrigorrezko irakaskuntza jarduera programatuta badago.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ezinbesteko kasua dagoela ikusi ondoren, horrek praktiketako funtzionarioaren izendapena egin duen organoari proposatu ahal izango dio pertsona horrek ikastaroa osorik errepikatu ahal izatea, egiten diren hurrengoetan, edo osorik errepikatzea edo praktikaldia osatzea, egoera eragozleak desagertu ondoren, betiere hala eskatzen badu.

Prestakuntza ikastaroaren edo praktikaldiaren kalifikazioa etenda geratuko da, baztertzeko arrazoiaren bat gertatzen bada, harik eta hasitako baztertze espedientea ebatzi arte.

Hautaketa prozeduratik prestakuntza ikastaroan edo praktikaldian kanporatzen diren izangaiek armak, dokumentazioa eta hartutako tresneria itzuliko dituzte.

Karrerako funtzionario izendatu aurretik prestakuntza ikastaroa edo praktikaldia bere boron-datez uzten badu, uko egin duen pertsonari prestakuntzan inbertitutako zenbatekoak itzultzeko eskatzeko aukera emango dio dagokion administrazioari.

Ondorio horietarako, jarduketa hauen ondoriozko zenbatekoak erreklamatu ahal izango dira:

- Prestakuntza ikastaroaren zenbatekoa (indarrean dagoen prezio publikoei buruzko araudiaren arabera).

- Prestakuntza ikastaroan zehar ordaindutako ordainsariak.

- Prestakuntza ikastaroan zehar emandako ekipazio pertsonalaren zenbatekoa.

Zenbateko horiek dagokion polizia kidegoan baja eman aurretik itzuli beharko dira.

BEDERATZIGARRENA. Bateriaezintasunak.

Proposatutako izangaiek, hala badagokio, abenduaren 26ko 53/1984 Legean, herri administrazioen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoan, eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoaren menpe egongo dira.

HAMARGARRENA. Gorabeherak.

Oinarri hauek eta izendapena aurkaratu ahalko dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritakoaren arabera.

Deialdiaren eta haren oinarrien aurka, zeinak administrazio bidea agortzen baitute, berraztertzeko errekurtsioa aurkez dezakete interesdunek Alkatetzan, hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri aurretik, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira: Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea, uztailaren 6koa; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testuategina; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa; Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxienezko programak ezartzen dituenak; Estatuko Administrazio Orokorreko Langileak Sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak Hornitzeko eta Lanbide Sustapenerako Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak.

HAMAIKAGARRENA. Datuen babesa.

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betez, bildutako datuak Aguraingo Udalak kudeatutako fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi hori hautaketa prozesua kudeatzera eta administrazio honetan bitarteko langileak izendatzeko sortuko den lan poltsa kudeatzera mugatuko da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira aipatutako udalaren bulegoetan (Aguraingo Zapatari kalea, 15. zenbakia).

Izangaiek berariaz onartzen dute, kontrako adierazpenik ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta helbururako tratatzea.

HAMABIGARRENA. Aldi baterako lan poltsa.

Deialdia ebatzi ondoren, oposizio ariketak gainditu dituzten eta deitutako plaza kopurua gainditzen duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, eta lan poltsa horiek aldi baterako langile beharrak betetzeko erabiliko dira.

Lan poltsa erabiltzeko irizpideak:

Honela esleituko dira plazak: beti deituko zaio libre dagoen lehen izangaiari. Egun berean, eskaintza bakoitzeko, gehienez ere 3 dei egingo dira. Deiei erantzuten ez badiete, hurrengo izangaiari deituko zaio.

Lan poltsa hori indarrean egongo da hura ordeztuko duen beste bat sortu arte.

**I. ERANSKINA:
INTERESDUNAREN ESKABIDEA**

INTERESDUNAREN DATUAK	
Izen-abizenak	IFZ

ORDEZKARIAREN DATUAK	
Pertsona mota	
Fisikoa Juridikoa	
Izen-abizenak / Sozietatearen izena	IFZ/IFK
Ordezkatzeko ahalmena	

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK			
Helbidea			
Posta kodea	Udalerria	Probintzia	
Telefonoa	Mugikorra	Faxa	Posta elektronikoa

ESKABIDEAREN XEDEA
ADIERAZTEN DU Ikusita ALHAOn iragarritako deialdia, _____(e)koa, Udaltzaingoko agente plaza bat oposizio-lehiaketa bidez hautatzeko deialdiari buruzkoa, _____(e)ko _____zk.ko ALHAOn argitaratutako oinarrien arabera. BERE ERANTZUKIZUNPEAN HAU ADIERAZTEN DU Espainiako nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko

Estatutuaren Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

- Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea atazak betetzeko.
- Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.
- Diziiplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko, edo langile lan kontratadunen kasuan, bereizi edo desgaitu aurretik betetzen zituztenen antzeko funtzioak betetzeko ere. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez egotea ezgaituta edo antzeko egoeran, ez eta bere estatuan enplegu publikora sartzeko modu berean eragozten duen diziiplina zigorraren baten edo antzekoren baten mende ere.
- Eskatutako titulazioa izatea.
- B motako gidabaimena edukitzea.

Adierazitako tituluak eta alegatutako merezimenduen zerrenda, eskabide honekin batera aurkeztu eta egiaztatzen direnak:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.

Proben hizkuntza:

Probak Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial honetan egin nahi ditut:

Ezintasuna (administrazioko organo eskudunak: foru aldundietako edo autonomia erkidegoetako sail eskudunak edo IMSERSOk, jaulkitako ziurtagiri egokia aurkeztu beharko da):

Ehuneko 33ko desgaitasun maila edo handiagoa izateagatik, honekin batera doan dokumentuan egiaztatzen dudana bezala, honako egokitzapen eta doikuntza hauek ESKATZEN DITUT, prozesuan gainerako izangaien baldintza berdinetan parte hartuko dudala ziurtatzeko:

Horregatik guztiagatik, ESKATZEN DUT, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, bere 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, eskaera hau onar dadila aipatutako langileak hautatzeko prozesurako.

Datuen babesa

Markatu dagokiona:

Berariaz onartzen dut eskabidean eta dokumentazioan emandako datuak oinarrietan adierazitako moduan eta helbururako erabiltzea.

Ez dut onartzen eskabidean eta dokumentazioan emandako datuak oinarrietan adierazitako moduan eta helbururako tratatzea.

DATA ETA IZENPEA

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla.

_____ (e) n, 2020ko _____ aren _____ (e) (a) n.

Eskatzailea,

Izpta.: _____

jauna, AGURAINGO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA.

**II. ERANSKINA: HAUTATUTAKO PERTSONAK DEIALDIRAKO ESKATUTAKO
BETEKIZUNAK EGIAZTATZEA**

INTERESDUNAREN DATUAK	
Izen-abizenak	IFZ

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK			
Helbidea			
Posta kodea	Udalerria	Probintzia	
Telefonoa	Mugikorra	Faxa	Posta elektronikoa

ESKATUTAKO DATUAK EDO DOKUMENTAZIOA			
1. Datuaren edo dokumentuaren izena: titulazioaren datuak.			
Azalpena: Erdi mailako irakaskuntzak (Batxilergoa, LH 2. maila edo baliokidea).			
Legegintza erreferentzia: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56.1.e) artikulua.			
Ekarpen mota:	Nahitaezkoa	Hala badagokio aurkeztu beharrekoa	Osagarria
Baliozkotasunaren betekizuna:	Jatorrizkoa/Benetako kopia	Kopia sinplea	
Datu edo dokumentu hori eskabidearekin batera aurkezten da.			
2. Datuaren edo dokumentuaren izena: medikuaren ziurtagiri ofiziala.			
Azalpena:			
Legegintza erreferentzia: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren			

61.5 artikulua.			
Ekarpen mota:	Nahitaezkoa	Hala badagokio aurkeztu beharrekoa	Osagarria
Baliozkotasunaren betekizuna:	Jatorrizkoa/Benetako kopia	Kopia sinplea	
3. Datuaren edo dokumentuaren izena: NANaren fotokopia (izangai atzerritarrek Aguraingo Udalaren jakinarazpen bat jasoko dute, eta, bertan, beren egoeraren arabera nahitaez aurkeztu behar dituzten agiri zehatzak zehaztuko dira).			
Legegintza erreferentzia: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56. artikulua.			
Ekarpen mota:	Nahitaezkoa	Hala badagokio aurkeztu beharrekoa	Osagarria
Baliozkotasunaren betekizuna:	Jatorrizkoa/Benetako kopia	Kopia sinplea	
4. Datuaren edo dokumentuaren izena: zinpeko adierazpena edo hitz ematea, adieraziz ezen ez dagoela ezgaitua eginkizun publikoetan jarduteko, ez dela baztertua izan edozein administrazio publikoren zerbitzutik diziplina espediente baten bidez, eta ez dagoela sartuta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunenak, jasotzen dituen eta ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarten egoeretako batean.			
Azalpena: Zinpeko adierazpena.			
Ekarpen mota:	Nahitaezkoa	Hala badagokio aurkeztu beharrekoa	Osagarria
Baliozkotasunaren betekizuna:	Jatorrizkoa/Benetako kopia	Kopia sinplea	
5. Datuaren edo dokumentuaren izena: Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko adierazpena edo hitz ematea aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daudela funtzio publikora sartzea eragozten duen diziplina zehapen edo kondena penal baten mende.			
Azalpena: Zinpeko adierazpena.			
Ekarpen mota:	Nahitaezkoa	Hala badagokio aurkeztu beharrekoa	Osagarria
Baliozkotasunaren betekizuna:	Jatorrizkoa/Benetako kopia	Kopia sinplea	

DATA ETA IZENPEA

Nire erantzukizunpean adierazten dut emandako datuak egiazkoak direla.

_____ (e) n, 2020ko _____aren _____ (e) (a) n.

Eskatzailea edo haren legezko ordezkaria,

Izpta.: _____

jauna, AGURAINGO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA.

III. ERANSKINA**GAI ZERREDA****I. Herritarren eskubideak.**

1. – Giza Eskubideak: giza eskubideen alderdi orokorrak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Giza eskubideak babesteko Europako sistema.

2. – Eskubideak eta askatasunak Konstituzioan: oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak. Oinarritzko askatasun eta eskubideen bermeak.

3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea: arauaren xedea eta helburua. Printzipio orokorrak. Administrazio araugintzan eta jardunean berdintasuna sustatzeko neurriak.

4. – Datu pertsonalen babesa eta eskubide digitalen bermea. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak. Gardentasuna eta informazioa. Eskubideak baliatzea.

5. – 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: herritarrek administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubide orokorrak. Administrazio erregistroak.

II. Antolaketa politiko administratiboa.

6. – Europako espazioa: Europaren eraikuntzaren historia. Europako erakundeak eta haien eskumenak.

7. – Estatuaren lurralde antolaketa Konstituzioan: toki-administrazioa. Probintzia. Udalerria. Autonomia erkidegoak.

8. – EAEren antolaketa politikoa eta administratiboa: Euskal Herriko Estatutuaren aurrekariak eta sorrera. Euskal Herriko Estatutuaren atariko titulua. Euskal Herriko botereak. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan bereganatutako eskumenak. EAEko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko eskumen banaketaren alderdi orokorrak.

9. Udalerria: lurraldea eta biztanleak. Antolaketa. Eskumenak. Araubide bereziak.

10. Aguraingo udal ordenantzak.

11. – Sektore Publikoaren araubide juridikoa. Administrazio publikoetako organoak: administrazio organoak eta eskumena. Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak: funtzionamendua. Abstentzioa eta errefusatzia.

12. – Toki erakunde oinarriak: ondasunen kontzeptua, toki erakundeen ondarea. Sailkapena. Araubide juridikoa. Toki ogasunak: diru sarreren sailkapena.

III. Administrazio zuzenbidearen eta prozeduraren iturriak.

13. – Administrazio zuzenbidearen iturriak: Legea: kontzeptua eta motak. Arautegia: arauak egiteko ahalaren titulartasuna eta mugak. Arau hierarkia. Legezketasun printzipioa administrazio publikoan.

14. – Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea: administrazio egintza: alderdi orokorrak. Eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio isiltasuna.

15. – Administrazio prozedura: interesdunak. Administrazio prozeduraren aldiak. Egintzak berrikustea.

16. – Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa. Xedapen orokorrak. Zehatzeko ahalaren printzipioak. Administrazio publikoaren ondare erantzukizuna.

IV. Zigor Zuzenbidea. Zati orokorra.

17. – Zigor Kodearen atariko titulua. Zigor bermeak eta zigor legearen aplikazioa.

18. – Delituak (ZKren 10. artikulutik 18.era).

19. – Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten kausak (ZKren 19. eta 20. artikulua), erantzukizun kriminala arintzen dutenak (ZKren 21. artikulua) eta erantzukizun kriminala larriagotzen dutenak (ZKren 22. artikulua).

20. Delituen erantzukizun kriminala duten pertsonak (ZKren 27. artikulutik 30.era).

V. Bide segurtasuna.

21. – Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra: aplikazio eremua (atariko titulua).

22. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: I. eranskina. Oinarrizko kontzeptuak, 1etik 9ra, 12tik 24ra eta 54tik 73ra.

23. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: arau haustea (V. titulua, I. kapitulua).

24. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: zehapenak (V. titulua, II. kapitulua).

25. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: erantzukizuna (V. titulua, III. kapitulua).

26. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: zehapen prozedura (V. titulua, IV. kapitulua).

27. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: zirkulaziorako jokabide arauak (II. titulua, I. kapitulua).

28. Bide Segurtasunari buruzko Legea: puntuak galtzea dakarten arau haustea. (II. eranskina).

29. – Bide Segurtasunari buruzko Legea: gidatzeko baimenak (IV. titulua, II. kapitulua).

VI. Arriskuen prebentzioa.

30. – 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa: xedea. Aplikazio eremua. Eskubideak eta betebeharrak.

31. – Eraikinak hustea: autobabeserako planen hastapenak. Gertakariari erantzutea. Gutxieneko jokabide jarraibideak. Okupazio handiko eraikinak. Larrialdi plana.

32. – Lehen laguntzak: lesioen lehen eta bigarren mailako balorazioa. Bihotz-biriketako bizkortzea. Aire bideen buxadura. Odoljarioak. Erredurei arreta orokorra.

VII. Euskal Herriaren eta Agurainen historia, natura ingurunea eta demografia.

33. – XIX. mendeko Euskal Herriaren Historia: konstituzio aldia eta berrezartze absolutista. Gerra karlistak: aurrekariak, bandoak, garapena eta ondorioak. Foru abolizioa. Euskal nazionalismoa: jaiotza eta garapena.

34. – XX. mendeko Euskal Herriaren historia: krisi monarkikoa. II Errepublika. Gerra Zibila, Autonomia Estatutua eta Lehen Eusko Jaurilaritza. Frankismoa: errepresioa, erbesteak eta erresistentzia. Trantsizio demokratikoa.

35. – Aguraingo udalerriaren ezagutzak: kokapena, historia, kale-izendegia, zerbitzuak, komunikazioak, instalazioak, etab.

36. – Euskal Autonomia Erkidegoko natura ingurunea: erliebearen konfigurazioa, unitate morfoestukturalak. Klima. Sare hidrografikoa. Itsasertza eta itsasoko urak. Landare paisaia eta lurzoru motak.

37. – 2018ko panorama demografikoa. Biztanleria: bilakaera eremu geografikoen arabera, egituraren bilakaera adinaren eta biztanleriaren sorlekuaren arabera. Jaiotzak: jaiotzen bilakaera eta ugalkortasun adierazleak. Heriotzak: heriotzen bilakaera eta bizi itxaropenaren bilakaera.

Ezkontzak: ezkontzen bilakaera. Migrazioak: kanpoko migrazioak, barneko migrazioak eta migrazioarekiko harremana.

VIII. Herritarrak Zerbitzatzeko Polizia.

38. – Euskal Autonomia Erkidegoko poliziaren jatorria eta garapena: Ertzaintzaren jatorri historikoa. Gernikako Estatutuaren 17. eta 36. artikulua. Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea: atariko titulua (1. artikulutik 4.era). Euskal Herriko Poliziari buruzko xedapen orokorrak (24. artikulutik 27.era). Euskal Herriko Polizia, Kode deontologikoa (28. artikulutik 38. artikulura). Ertzaintzako funtzionarioak (105. artikulutik 115. artikulura). Udaltzaingoak (116. artikulutik 121.era).

39. – Hizkuntzaren erabilera zuzena: komunikazioa eta zerbitzuaren kalitatea: komunikazio prozesua. Elementuak. Oztopoak komunikazioan. Administrazio dokumentuak hobeto idazteko jarraibideak. Administrazio-dokumentu motak. Administrazio dokumentuen oinarrizko egitura. Hizkuntza errespetuzkoa eta ez-sexista.

40. – Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren eredua.